

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko martxoaren 31an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-02-24ko ohiko osoko bilkuraren akta, (2.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko kultur eragile zein norbanakoek gauzatzen dituzten proiektuak, programak eta sormen lanak diruz laguntzeko arautegiaren oinarriak eta 2022ko dirulaguntzen deialdia onartzea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 22an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Diruzain lanpostua Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioen funtzionarioentzat sailkatzea, Pertsonal eta Barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 7an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Gizabidea Fundazioa elkartearen arteko hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 8an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 8an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: MU Enpresagintza S-Coop-eko Kontseilu Erretorerako udal ordezkariak izendatzea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 28an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Olabarrietako auzo-alkate berria izendatzea onartzea, Zerbitzuak eta Landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.

8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren elkarteari diru-laguntza zuzena ematea onartzea (3.000€), Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.
9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hobeki elkartearen (hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkartea) kide egiteko proposamena onartzea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.
10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Pertsona langabetuak kontratatze dirulaguntza oinarriak eta 2022ko deialdia onartzea, Sozioekonomia Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 9an.
11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatze laguntza oinarrien eta 2022ko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 9an.
12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa-bonuen oinarrien eta 2022ko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 9an.
13. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza oinarrien eta 2022ko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 9an.
14. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Oinherri elkartearen arteko hitzarmena luzatzea eta dirulaguntza zuzena onartzea, Euskara-Hezkuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.
15. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen den eskatzailearen obra, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 22an.
16. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko herrian gazteek etxebizitzak alokatze diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarri erregulatuak eta 2022ko deialdia onartzea, Haur eta Gazteria Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 8an.
17. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Herritarren parte-hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantziak hasierako onarpena ematea, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 22an.
18. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen diru laguntzak emateko oinarri arautzaile orokor eta espezifikoak eta 2022ko deialdia onartzea, Partaidetza eta Garapen Komunitarioko Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 22an.
19. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: 2022ko aurrekontuaren 2022-1P kreditu aldaketarako espediente onartzea, kreditu gehigarriaren modalitatean, guztira 2.129.163,30 eurokoa, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 28an.
20. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Aurrekontuen plantilla aldaketa, Kirol teknikari plaza sortzeko, funtzionarioa, A2 taldea, Pertsonal eta barne antolakuntza Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 28an.
21. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: GFaren eta Udalaren arteko lankidetzak-hitzarmena onartzea, tarifa sistema bateratua (MUGI sistema)

duen garraio publikoa eta mugikortasunaren arloko lankidetzaren duen garraio publikoa sustatzeko, Zerbitzuak Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.

22. Hala badagokio, presako gaiak.
23. EAJ taldearen mozioa: Baso Landaketa eta kudeaketaren inguruko mozioa.
24. EAJ taldearen mozioa: Vladimir Putinek Ukrainaren aurkako erasoaren aurkatzeko mozioa.
25. EH Bildu taldearen mozioa: Ukrainako gerrari buruzkoa.
26. EH Bildu eta EAJ taldeen mozio bateratua: Sahara inguruan Espainiako gobernuak azaldutako azken posizioaren aurrean.
27. EH Bildu taldearen mozioa: Elkarrekin gara ekimenaren manifestuari buruzkoa.
28. EH Bildu taldearen mozioa: Oñatiko pentsiodunen eskaerari buruzkoa.
29. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
30. 2022ko otsailaren 28ko 230 Alkate Dekretuaren berri ematea, Udaleko 2021eko Aurrekontuaren Likidazioa onartzen dena.
31. 2022ko otsailaren 17tik 2022 martxoaren 25era bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 181 zenbakitik 334 zenbakira.
32. 2022ko Toki Gobernuak Batzordeen akten berri ematea (4., 5. eta 6. Saioak).
33. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

3

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022ko martxoaren 28an

Alkateak

Izaro Etorza Arregui